



**2024KO IRAILAREN 2KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko irailaren 2an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 60 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA BERROGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA HAMAIIKA euro ETA LAUROGEITA HAMAIIKA zentimokoa (145.611,91 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- 2023KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIRUARENGATIKO HOBARRIA.-**

Udal honek %50eko hobaria araututa dauka Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan Alokabideri emandako etxebizitzentzat edota beste bide batetik alokatutako etxebizitzentzat.

2023 ekitaldian zerga ordaindu eta egoera horretakoren batean daudenek hobari hori eskatu ahal zezaten, 2024ko maiatzaren 27tik ekainaren 17ra bitarteko epea ireki zen.

Epe horretan aurkeztutako eskaerak, eta hobaria lortzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertu ondoren, Ogasun Batzordeko zinegotzi arduradunak hobari horiek onartzeko proposamena egin du.

Proposamenean, 55 laguni guztira LAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABI euro ETA HOGEITA BOST zentimo (4.532,25 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hauek onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarreren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

#### IV.- LAZKAOKO DATUM ALTIMETRIKOA ALDATZEKO ETA OINARRIZKO KARTOGRAFIA EGUNERATU ETA ERAIKITZEKO ZERBITZUA (GEOGRAMA S.L., 2023): BERME ITZULKETA.-

2023ko urriaren 23an, Tokiko Gobernu Batzordeak Lazkaoko datum altimetrikoa aldatzeko eta oinarrizko kartografia eguneratu eta eraikitzeko zerbitzuaren kontratua GEOGRAMA S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 3.110,00 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, zerbitzua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, GEOGRAMA S.L.-k 2024ko abuztuaren 2an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Tokiko Gobernu Batzorde honek, aho batez, 3.110,00 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

#### V.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Zubizkitza auzoko 2. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen hirugarren obra egiaztatagiria egin dute. Hirugarren obra egiaztatagiri honen zenbatekoa HAMA ZAZPI MILA ETA HEMEZORTZI euro ETA HOGEITA BEDERATZI zentimokoa (17.018,29 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU euro ETA LAUROGEITA LAU zentimokoa (3.573,84 €) da, guztira HOGEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI euro ETA HAMAHIRU zentimokoa (20.592,13 €).

Lanak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), hirugarren obra egiaztatagiri hau onartu egin du.

#### VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenean aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:



Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2024. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 284,88 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Oin Arin Dantza Taldeari.-

2024ko ekainean Dantzari Txiki eguna eta San Juan sua antolatzeagatik 6.588,65 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 481.01.334.00 partidatik egingo da.

VIII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei seigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
GOITIA AUTOESKOLA	70,00 €	17,50 €

GUZTIRA	70,00 €	17,50 €
---------	---------	---------

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

- Merkatariei 2024ko irekiera eta obrenatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Leire Conde Abella (Akademia) (Irekiera 1.500 € eta errotuloa euskaraz 499,10 €)	1.999,10 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.999,10 €</b>

Ordainketa 2024ko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO  
UDALA

*[Handwritten signature]*